

15
16

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi

# Miramongo Matinéeak
# Matinées de Miramón

EUSKADIKO ORKESTRA

**Miramongo Matinéeak,** Euskadiko Orkestra Sinfonikoko kideek musika sinfonikoaz at dauden errepertorioak jorratzen dituzten programak diseinatu ditzaten sortutako bilaketa eta hausnarketarako espazioa dira funtsean. Gainera, bestelako egitarauak aurkezteko etengabeko ahaleginean, oso garrantzizkoa bihurtu da beste erakunde artistikoekin lankidetza, hortik sortzen baita eskaintza beste diziplinetara zabaldu eta abesbatza-emanaldiak edo zuzeneko musika zein dantza uztartzen dituzten ekoizpenak burutzeko aukera.

Las **Matinées de Miramón** son en esencia el espacio en el que los miembros de la Orquesta Sinfónica de Euskadi investigan, experimentan y diseñan programas en los que abordar repertorios al margen de la música sinfónica. Además, en esa búsqueda continua de propuestas alternativas cobra gran importancia el trabajo en colaboración con otras entidades artísticas, ya que permite llevar este ciclo a otras disciplinas como la música coral u ofrecer producciones que aúnan la danza y la música en directo.

**11:00 h**
**Euskadiko Orkestraren egoitza**
Sede de la Orquesta de Euskadi

## 2015

### 01 Irailak 26 Septiembre

**KUP TALDEA + KAABESTRI**

**J.S. Bach:** kantatak / cantatas (BWV 131, 150, 182, 196)

Bach barrokoaren erdigunean kokatu zuen maisutasuna haren hastapenetako lanetan ere antzematen da. Horrela erakusten dute Gabriel Baltések zuzendutako KUP Taldea abesbatzak eta Kaabestri ganbera taldeak aurkezten dituzten lau kantata erlijiosoek / El genio que convertiría a Bach en epicentro del Barroco se trasluce ya en sus primeras obras. Las cuatro cantatas religiosas que presentan el coro KUP Taldea, que dirige Gabriel Baltés, y el grupo de cámara Kaabestri así lo atestiguan.

### 02 Urriak 17 Octubre

**OCTETO LEIPZIG**

**F. Mendelssohn:** Harientzako oktetoa, opus 20 / Octeto para cuerdas, opus 20

Haur miraria, musikari izateaz gain goiargidun marrazkilari eta idazlea, bere garaikideek mirestua. Harrigarria da Mendelssohnek hain bizitza laburrean burututako lan-sorta itzela. Oktetoan, berriz, ganbera-musikaren eta orkestra-musikaren arteko jatorri hibridoa ekarpen berriztatzailea da / Niño prodigio, inspirado dibujante y escritor además de músico y admirado por sus coetáneos. De Mendelssohn sorprende el ingente catálogo desarrollado en apenas 38 años. De su Octeto, destaca su naturaleza híbrida, entre la música de cámara y la orquestal.

### 03 Urriak 31 Octubre

**TRIO SINCRONÍA**

Klasikoak beti modan / Los clásicos siempre están de moda

Adierazpen irmoa biolin, biolontxelo eta piano trio honena: “Musika klasikoko jenioen ibilbideak egungo izarrenak bezain aberatsak eta hausleak dira. Ez zaigu haren zale izateko izar distiratsuagorik bururatzen! Eta haien fan gara! Mozart eta Beethovenen fan, esaterako” / Toda una declaración de principios la de este trío de violín, cello y piano: “Las carreras de los genios de la música clásica son tan intensas y rompedoras como las de las estrellas de hoy. ¡No se nos ocurren astros más rutilantes de los que ser fan! ¡Y lo somos! De Mozart y Beethoven, por ejemplo”.

### 04 Azaroak 14 Noviembre

**SEXTETO BELHARRA**

**Seiko urrea: Brahms + Dvorak.**
Hari sextetoak / sextetos de cuerda

Brahmsek esan zuen: “Ez da konpositorerik izango Dvorakek baztertutako ideiak izate hutsak ohoratuko duenik”. Eta Dvorakek Brahms ulertzeko bide berri bat aurkitu zuen: ez aro baten amaiera gisa, garai berri baten hasieratzat hartuta baizik. Belharrak bien arteko loturari eusten dio / Brahms llegó a decir de Dvorak que ningún compositor sería honrado con tener ni tan siquiera las ideas que este desechaba. Y Dvorak encontró otra forma de entender a Brahms: no como el final de una era, sino como el inicio de una nueva etapa. Belharra rescata el vínculo entre ambos.

### 05 Azaroak 28 Noviembre

**ALAI TRÍO**

Kontsonantzia / Consonancia

1836an Mendelssohnek Schubertek kaleratu berri zuen *pianodun trio* bat interpretatu zuen festa pribatu batean eta honek izan zuen eraginik haren *1. Pianodun trioan*. Alai Trio bi musikarien arteko kontsonantziaz ariko zaigu / En 1836 Mendelssohn interpretó en una fiesta privada uno de los tríos con piano que Schubert acababa de publicar; una lectura que dejó huella en su *Trío con piano nº1*. Alai Trío nos habla de la consonancia entre ambos compositores.

### 06 Abenduak 19 Diciembre

**IZAI**

**G.F. Ghedini:** omenaldia / homenaje

IZAI haize eta piano taldeak Ghediniren lana berreskuratuko du. XX. mendean italiar musika bidegurutzean zegoela, hark modernitatetik abiatuta Barrokoko iragan instrumental aintzatsua berreskuratzearen aldeko hautua egin zuen. Harekin, R. Dionisi, C. Savina eta N. Rota konpositoreak / El grupo de viento y piano IZAI recupera la figura de Ghedini. Ante la encrucijada que vivió la música italiana en el XX, eligió rescatar desde la modernidad el glorioso pasado instrumental del Barroco. También R. Dionisi, C. Savina y N. Rota.

## 2016

### 07 Urtarrilak 16 Enero

**POSEIDON**

Mundu berriarena / Del nuevo mundo

Poseidon hari laukoteak Dvorakek Estatu Batuetan emandako aroa ekarriko du gogora, *Mundu Berriaren Sinfoniaren* itzaletara sortutako *12. Kuartetoa, “Amerikarra”* eskuartean duela. Eta Bohemian jaiotako “amerikarra”ren lanetik Pensilvaniako amerikar peto baten lanera: S. Barber / El cuarteto de cuerda Poseidón aborda el período estadounidense de Dvorak a través de su *Cuarteto nº12, “Americano”*, surgido a la sombra de la *Sinfonía del Nuevo Mundo*. Y de un “americano” nacido en Bohemia a un americano de Pensilvania: S. Barber.

### 08 Urtarrilak 30 Enero

**ENSEMBLE DIATESSARON**

Oroitzapen eztia / Dulce memoria

Errenazimendua berrikusteko lau konpositore: A. de Cabezón, Carlos I eta Felipe II.aren gortean nabarmen; Frescobaldi, Bach eta beste askoren pizgarri; Monteverdi, operaren aitzindari; eta kontzertuari izenburua ematen dion lanaren egile D. Ortiz / Parada en el Renacimiento con obras de A. de Cabezón, músico preeminente en la corte de Carlos I y Felipe II; Frescobaldi, inspirador de otros como Bach; Monteverdi, padre de la ópera actual; y D. Ortiz, cuya obra más conocida da título al concierto.

### 09 Otsailak 13 Febrero

**KALEIDO**

Metamorfosia / Metamorfosis

Kaleidok modu berezian aurkeztuko digu R. Straussen *Metamorphosen*; bera hil eta mende erdira agertutako hari septetorako bertsioan, alegia. Bere bizitzaren azken txanpan, introspekzioari emana, Straussek musika bihurtzen du emoziorik trinkoena / Kaleido propone *Metamorphosen* de R. Strauss en una versión para septeto de cuerda descubierta medio siglo después de su muerte. Al final de su vida, sumido en la introspección, Strauss convierte en música la emoción más densa.

### 10 Otsailak 27 Febrero

**ALFONSO GÓMEZ**

Piano errezitaldia / Recital de piano

Alfonso Gómezen errepertorioa Barrokoan hasi eta bideoartearen eta musika elektronikoaren gaurkotasuneraino heltzen da, egokikortasun honek nazioarteko eszenan erreferentziazko bakarlari bihurtu du. Beethoven, Brahms eta Ravelen obrak aurkeztuko ditu errezitaldian / El repertorio del vitoriano Alfonso Gómez abarca desde el Barroco hasta la contemporaneidad del vídeoarte y la música electrónica, lo que lo convierte en un solista de referencia en la escena internacional. Presenta en recital obras de Beethoven, Brahms y Ravel.

### 11 Martxoak 12 Marzo

**TRÍO “DOBLE”**

Mihi bikoitzerako ganbera musika / Música de cámara para doble caña

Fagot, oboe eta piano hirukote baten eskutik, Glinka, Saint-Saëns eta Poulencek XVIII eta XIX mende bitartean, 150 urtetan zehar, sonata zein trioetan mihi bikoitzeko instrumentuen erabilpena islatzen duen kontakizun argigarria eratzen dute / De la mano de un trío compuesto por fagot, oboe y piano, Glinka, Saint-Saëns y Poulenc trazan un relato muy ilustrativo de lo que, entre los siglos XVIII y XIX, fueron 150 años de utilización de instrumentos de doble caña en sonatas o tríos.

### 12 Apirilak 9 Abril

**DANTZAZ KONPAINIA + CUARTETO DIONYSUS**

Launaka

“Launaka” Dantzaz Konpainiaren ekoizpen berria da. Eszenatokian hamabi dantzari eta Dionysus hari laukotea programa berean taupadaka: Arriaga eta Schuberten musika P. Mohovich eta V. Safronkinek sortutako koreografietan ahots / “Launaka” es una nueva producción de Dantzaz Konpainia. Sobre el escenario, doce bailarines y el cuarteto de cuerda Dionysus latiendo juntos en un mismo programa: música de Arriaga y Schubert como voz para las coreografías de P. Mohovich y V. Safronkine.

### 13 Apirilak 30 Abril

**TRIO MEDICI**
**(Prix de l’Académie Ravel 2014)**

Académie Ravel - Euskadiko Orkestra Sinfonikoa: elkartrukea / intercambio

Donibane Lohitzuneko Académie Ravel eta Euskadiko Orkestraren arteko lankidetzatik sortu da 2014an Lapurdiko musika erakunde ospedunak saritutako Trío Medici biolin, biolontxelo eta piano hirukotea Miramonen entzuteko aukera /
De la colaboración entre la Académie Ravel de St Jean de Luz y la Orquesta de Euskadi surge la oportunidad de escuchar en Miramón al Trio Medici (violín, violonchelo y piano), premiado por la prestigiosa institución musical labortana en 2014.

### 14 Maiatzak 21 Mayo

**CUARTETO HEMIOLA**

Gauari ereserkiak / Himnos a la noche

“Zein izaki bizidun zentzudunak ez du inguratzen duen espazioko gauza miragarri guztien artean dena pozten duen Argia maite?... “ Horrela hasten da Weber eta Mendelssohnen musika biltzen duen kontzertuak oinarri duen Novalisen poema / “¿Qué ser vivo dotado de sentidos no ama, por encima de todas las maravillas del espacio que lo envuelve, a la que todo lo alegra, a la Luz?...” Así comienza el poema de Novalis que inspira un concierto con música de Weber y Mendelssohn.

### 15 Ekainak 4 Junio

**KAABESTRI**

Barrokotik gure garaira / Del Barroco a nuestro tiempo

Fagota, biolontxeloa eta kontrabaxuak, orkestran bakarlari ezohikoak, berebiziko papera izango dute Barroko, Klasizismo eta XX. mendean barrena marraztutako ibilbide honetan. Gonbidatu nagusiak izango dira Kaabestri ganbera taldeak interpretatuko duen programa honetan / Fagot, cello y contrabajo, instrumentos poco dados a ser solistas dentro de la orquesta, adquieren un papel estelar en este recorrido por el Barroco, el Clasicismo y el siglo XX. Serán los invitados principales en un programa interpretado por el grupo de cámara Kaabestri.

### 16 Ekainak 18 Junio

**VENEZIA**

Italiar inspirazioak / Inspiraciones italianas

Vivaldi eta Rossinik Veneziaren xarma ehuntzen duten kalezulo eta ubideek osatutako labirintora eramango gaituzte. Ganbera talderako idatzitako italiar musika 200 urtetan zehar / Vivaldi y Rossini nos arrastrarán al laberinto de callejuelas y canales que tejen el encanto de Venecia. 200 años de música italiana para grupo de cámara.

Hemen azaltzen diren egitarau, interprete eta egunek aldaketak jasan ditzakete. Kontzerturen bat Orkestrari dagozkion arrazoiengatik bertan behera utziz gero soilik itzuliko da dagokion zenbatekoa, ez kontzertuaren atzeratze edo aldaketa kasuan / Todos los programas, fechas e intérpretes que aquí figuran son susceptibles de modificación. La cancelación de un concierto por causas imputables a la Orquesta, no así su aplazamiento ni modificación, será la única causa admitida para la devolución del importe correspondiente.

## 16 kontzerturako abonua
## Abono de 16 conciertos
## 83,50€

Salmenta / Venta: **Telefonoz / por teléfono: 943 01 32 32**
**www.euskadikoorkestra.eus**

**64€** > 65 urtetik gorakoei, Orkestrako beste zikloetako abonatuei, Kursaal Eszenako abonatuei, Kutxabankeko K26 eta K26+ Txartelen titularrei, Eureka! Zientzia Museoko lagunei eta Musikene (bidali Orkestraren bulegoetara egiaztagiria) / Mayores de 65 años, titulares de abonos de otros ciclos de la Orquesta, de Kursaal Eszena, de las tarjetas K26 y K26+ de Kutxabank, amigos/as de Eureka! Zientzia Museoa y Musikene (remitir a la Orquesta documento acreditativo).

## Sarrerak
## Entradas
## 7€

Salmenta / Venta

- **www.euskadikoorkestra.eus**
- **www.kutxabank.es**
- **Taquilla Auditorio Kursaal**
  **Auditorioko leihatila.**
- **Taquilla Sede de la OSE /**
  **EOSren Egoitzako leihatila:**
  Día del concierto a partir de las 10:30 h., si hubiera disponibilidad de aforo / Kontzertu-egunean 10:30etatik aurrera, aforo librerik balego.

## Doako autobus zerbitzua / Servicio gratuito de autobús:

Irteera/salida 10:25 h.
Gipuzkoa Plaza, 4 - Antso Jakituna 18 - Madrid Hiribidea 34

Euskadiko Orkestraren berri izan nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan edo izena eman gure webgunean EUSKOR buletin digitalean / Si quieres estar al día en lo que a la Orquesta de Euskadi se refiere, ponte en contacto con nosotros/as o suscríbete en nuestra web al boletín digital EUSKOR.

Miramon Pasealekua, 124
20014 Donostia / San Sebastián
T.: 943 01 32 32
www.euskadikoorkestra.eus







# Urte osoan bizi dugu musika

Gipuzkoan musika bizi dugu barren-barrenetik.
Eta Kutxaren Gizarte Ekintzatik kultura bultzatzen dugu, urtean zehar antolatzen diren jarduera eta ekitaldei ugari babestuz.
Era guztietako kultur adierazpideak bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren parte ere badelako.

kutxabank

kutxa FUNDAZIOA